# BERRIGARA

4, zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1995, abenduak 1



*Eskola dantzataldea zapatuan frontoian*

# Frontoia zabalik

## Pilota noren esku?

Danetik
eta onetik...
BEDELKARreko
dendetan

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARIEN ELKARTEA

500.000 pzta.
irabaz ditzakezu!!



AROZTEGIA

# UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonoa eta Faxa: 76 54 91

**ZATOZ GURE ERAKUSKETA IKUSTERA**



## Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK


---


# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:** CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19
**Zuzendaria:**
Eneko Azkarate
**Erredakzioa:**
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
Jone Larrañaga
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elortza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Gorka Elortza
Miguel Angel Elkoroberezibar
Alex Labaien
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Portadako argazkia:**
Javier Ruiz de Larrinaga
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea
**Tirada:**
4.000 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)


**Copyright:**
BERRIGARA


**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599



**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren


## Z E B E R R I D A ?

# IÑIGO IDARRETA

## *Frontoiko arduraduna*



**- Noiz izango ditugu pelota partiduak Bergaran?**

- Ba, egia esan, ez dakit. Oraindik ez dago ezer ziurra eta dena airean dago. Gustatuko litzaidake bestelako erantzunik ematea baina momentuz ezinezkoa zait. Fetxa bat? Ez dakit, benetan. Tradizioz, urtarrilaren bata oso fetxa berezia da pelota partiduetara joateko eta ordurako jaialdi erakargarri bat antolatzeko asmoa daukagu. Aurretik ere zerbait ekartzeko ahaleginak egingo ditugu. Gure borondatea hori da behintzat, arazoa lehen bait lehen konpontzea eta goi mailako pelota ekartzea.

**- Pelotari koadrorik baduzue?**

- Ezin dut ezer esan eta zerbait konfirmatzen dugunean jakitera emango dugu. Baina oraingoz hobe da isilik jarraitzea.

**- Frontoia bestelako ekitaldiak egiteko erabiliko al da?**

- Baliteke bai. Kontzertuak, beste kirol ekitaldi batzuk edota hainbat ikuskizun egin ahal izango dira Frontoian.

***"Gure borondatea lehen bait lehen goi mailako pelota ekartzea litzateke"***

## I T U R R I O N E T I K

### Gabonetako argiak abenduaren 22an piztuko dira

Abenduaren 22an piztuko dira Gabonetako argiak herriko hainbat kale eta auzotan. Aurreko urteetan bezala Ilanor S.A. enpresa nafarrak burutuko du argien instalakuntza eta, esan bezala, abenduaren 22tik eta urtarrilaren 7ra arte izango dira piztuta. Herriko lau sarreretan, San Martin plazan, Barrenkalean, San Pedron, Bidekurutzetan, Arrurriagan, Artekalean eta Osintxu, Angiozar, Elorregi, Ubera eta Elosuko auzoetan jarriko dira argiak. Argien instalakuntzak 2.250.000 pezeta inguruko aurrekontua dauka. Aurrekontuko %8a inguru komertzianteen aportazioarekin bete da aurreko urtetan.

## E S A N D U T E

"Hasieran laguntza eskaini zidatenen artean, besteak beste, Miguel Etxanizekin akordatzen naiz. Oroitzapen oso politak dauzkat bere etxera eramaten ninduelako. Orduan bizpahiru urte izango zituen bere semea ezagutu nuen. Ondoren Jokin Etxanizekin profesionaletan jokatzera iritsi naiz. Asko maite dudan mutila da"

**JOXEAN TOLOSA**
Pelotari ohia
EL DIARIO VASCO

•

"Nere senarrak ez zuen IHESaren proba egin nere emaitzak jakin eta handik urte t'erdirarte. Akojonatuta zegoen. Bere analisia negatiboa izan zen, baina batzutan arazoak ditu lana topatzeko, hemen herrian jende guztiak ezagutzen nau..."

**LIERNI IRIZAR**
Seropositiboa
LA REVISTA DE EL MUNDO

•



BRAVEHEART
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 19.15, 22.30.
Igandea: 19.15, 22.30.
Astelehena: 19.30.
Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).



LIBERAD A WILLY!
Igandea: 11.30.
Asteazkena: 17.00.




SMOKE
Asteazkena: 19.30, 22.15.
Osteguna: 22.30.

## Zinea

▼▼ **Mel Gibson** aktoreak (*Mad Max, Arma letal*) zuzendu eta protagonizatutako filmea. *William Wallace* (**Gibson**) XIII. mendean Eskoziara itzultzen denean, Inglaterrako erregeak ezarritako tiraniaren aurka borrokatuko du. **Sophie Marceau** *Isabel printzesa*ren paperean. Larunbatean eta igandean, arratsaldeko 5etan, **Un indio en Paris** filmea emango da.

▼▼ Gaztetxoei zuzendutako filme honetan, mutiko bat eta bale baten arteko gorabeherak azaltzen zaizkigu. *Willy* izeneko balea ez dago prest parke akuatikoan agintzen dizkioten truko eta ariketak egiteko. Parkean *Jesse* izeneko gaztea ezagutuko du eta bion artean harreman berezia piztuko da.

▼▼ Berlingo azken zine jaialdian, besteak beste, Ikusleen Epaimahaiaren sari berezia eskuratu zuen filma. **Paul Auster** idazleak (*El Palacio de la Luna, Mr. Vértigo*) idatzi eta **Wayne Wang**ek zuzendutako filme honetan, **William Hurt**, **Harvey Keitel** eta **Forest Whitaker** dira errepartoan. Brooklyngo bizilagunen ikuspegi bitxia ematen zaigu.

## Deiak

▼ **Erakusketa.** Zigilu eta diru bildumazaleen erakusketa Kultur Etxean abenduaren 3ra arte.

▼ **1968**an jaio eta Aranzadi ikastolan elkarrekin ibili zirenen afaria abenduaren 16an. Izen-ematea Bolintxo kirol dendan, 76 38 32 (Alex Gardoki) telefonoan. Depositoa 1.000 pezeta.

▼ **Erakusketak.** Komite Internazionalistaren hamabostaldiaren barruan, "Emakumea eta pobrezia" eta "Guatemala" erakusketak igandera arte Pol-Polen eta Nahikarin.

▼ **Argazkiak.** Agustin Gurrutxaga eta Benito Canteroren lanak Azkoitiako Basterretxe kafetegian.

## Ogia

▼ **Igandea 3:** Mizpildi.
▼ **Asteazkena 6:** Ogizun.
▼ **Ostirala 8:** Konde.
▼ **Igandea 10:** Bolintxo.

## FARMAZIAK

▼ **Ostirala 1:** Estella.
▼ **Larunbata 2:** Mozos.
▼ **Igandea 3:** Mozos.
▼ **Astelehena 4:** Camacho.
▼ **Asteartea 5:** Puy.
▼ **Asteazkena 6:** Guallar.
▼ **Osteguna 7:** Estella.

IBARGUREN PENTSUAK
*Biona* pentsuen biltegia
*Bioter* produktoak eta haziak
San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82
KIRIBILTXO
ILEAPAINDEGIA

# Eskola dantz-ataldea

## Pilotalekuaren inaugurazioa, larunbatean 10.30etan



Behe Nafarroako dantzak eskainiko ditu, beste batzuen artean, Eskola dantzataldeak zapatuko ikuskizunean.

**Bihar larunbata** Donostiako Eskola dantza taldearen ikuskizuna izango da gaueko 10 t'erdietan Frontoian. 1940 urtean sortu zen Schola Cantorum de Ntra. Sra. del Coro, gaurko Koruko Ama Birjinaren Eskola hain zuzen ere. 1945-1950 urte bitartean Gabonetako estanpak, Pasioko estanpak eta Estanpa eukaristikoak antzeztu zituzten 200 bat lagunen partaidetzarekin, abeslari, aktore, dantzari eta musikariak tartean. Emanaldi hauek ospe haundia eman zioten Eskolari eta, Estatuko hiri nagusienetan izan ondoren, dantza talde mistoa sortu zen.

Garai haietatik hona Eskolak hainbat jira burutu ditu, Europan zein Ameriketan gure folklorea ezagutzera emanez. Besteak beste, Frantzian, Alemanian, Beljikan, Italian, Kuban edota Bulgarian izan dira eta oraintsu Arjentinatik etorri berriak dira. Hamabost eguneko jira egin dute Arjentinan eta Eduardo Muruamendiaraz bergarar dantzariak azaltzen digun bezala, *"primeran tratatu gaituzte eta oso esperientzia polita izan da. Esan behar da ia etxean bezala egon garela hango euskal etxeak bisitatu baititugu".*

### Hiru bergarar Eskola taldean

Edu Muruamendiarazek 12 urte daramatza Eskola dantza taldean eta berarekin batera Aitzol eta Asier Ena anaiak ari dira azkenaldian. Bihar, taldeko beste dantzariekin batera, bi ordutako ikuskizuna eskeiniko dute Frontoian. Taula gainean 40 dantzari eta 8 musikari arituko dira eta, besteak beste, "Otxagabia", "Neskatxen eskudantza", "Dantzari dantza" edota "Uztai dantza" dantzatuko dituzte. Eskolak Gipuzkoa, Bizkaia, Zuberoa, Behe Nafarroa eta Nafarroako dantzak eta hainbat koreografia eskeiniko dizkie ikusleei.

Eskolako arduradunek azpimarratzen duten bezala, *"folklore-eskualde desberdinen artean alde nabarmenak bereiz daitezke. Bestalde, europar folklore gehientsuenean gertatu den bezala, dantza mordo bat galdu eta atzerri kutsuko berriak bereganatu dira, nahiz eta kasurik gehienetan bere ohizko izakerari hurbilago zaizkion moduetara moldatu diren".* Eskolak, euskal folklorearen tradizionalismoa errespetatuz, dantza eta koreografia horiek ezagutzera eman nahi ditu.

Biharko dantza ikuskizunerako sarrerak 500 pezetatan jarriko dira salgai Frontoian gaueko 9etatik aurrera.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi ☎ 76 15 09

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

### Argiak urte guztian zehar!

Gabonak heltzear daude eta urtero moduan herriko kaleetan argiak jarriko ditu Udalak. Ideia polita da, batez ere herriko dendentzako produktuak erakargarriagoak izateko. Baina Gabonetan argiak apaingarri bezala erabiltzen badira ere, urtean zehar beharrezkoa zaigu kaleko argia eguneroko bizitzan.

Bai gure etxeetan, bai kaleetan ezin gara argi barik bizi eguzkiak hurrengo egunera arte agur esaten digunean. Gainera argi artifizialaren beharra toki arriskutsu eta jendea dabilen kaleetan aregotu egiten da. Esate baterako, Algodonera ondoan dagoen tuneletik irtetzen garenean Labegaraieta kiroldegiraino ez dago argi bat bera ere ez. Oinezkoek bidea ilunetan egin behar du eta kontutan hartzekoa da bide horren espaloia bariantearen ondoan dagolea eta kotxe eta kamioi ugari pasatzen direla bertatik.

Bestalde, astean zehar hainbat gazte joaten dira oinez herriaren erditik Labegaraietaraino asteroko entrenamenduak egitera edo kirola egitera eta arriskutsua izaten da tramo hori iluntasun osoan egin beharra. Alde batetik, gidariek ondo ikusten ez dutelako oinezkoa eta bestetik, oinezkoak, berak, ez duelako bidea egoera onenean ikusten. Horrek, (espero dezagun inoiz ez gertatzea), egunen batean istripuren bat eragin dezake. Hori gerta ez dadin, ardura dagokionari eskatuko nioke, farolaren batzuk jartzea tramo horretan. Horrez gain, Algodonerako tunelaren sarreran argiak falta dira eta itokinak ere badaude.

A. K. (NAN: 72.572.786)

### UNEDek ez du hau merezi. Herriak ere ez

Honez gero denok ezagutzen dugu Patronatokideek-Diputazioa, Bergarako Udaletxea eta Kutxa- UNEDekiko martxan jarri duten ezereztatze prozesua.

Grabea iruditzen zait Roman Sudupek -Diputatu Nagusia eta Patronatoko lehendakaria- 22 langile kaleratzeko erabakia hartu izanak arazoari "bi minutu ere dedikatu gabe". Grabea da Koro Airzanak -Kultura Diputatua eta Patronatokokidea- erabaki berdina hartu izanak gaiaren ezaguera falta nabarmen bat izan arren, adierazpenak egin dituen bakoitzean demostratu duen bezala.

Baina, bereziki grabea da Bergarako Alkatearaen jokaera eta bere Gobernukide direnen isiltasuna. Onartezina, asko delako Bergarak UNEDi zor diona eta oso gutxi kostatzen zaiona. Onartezina, Victoriano Gallastegik alkate bezala izan duen sentsibilitate falta, Herriaren nahiak eta interesak ahaztuz eta batek daki nolako interes politikoak jarraituz. Oso grabea da, Victoriano, Bergarako Udalak arazo honan aurrean erakutsi duen axolagabetasuna. Gogoratu beharra dago aurtengo martxoaren 27an Udalak egin zuen Plenoan UNEDen aldeko proposamen bat onartu zela. Proposamen honen bitartez Udalak konpromezu hauek hartu zituen: UNEDekiko bere laguntza berrestea eta beste Patronatukideei euren erantzunkizunak esijitzea UNEDen egungo egiturak indartzeko edo behintzat mantentzeko asmoz.

Mozio hau Bergarako Eusko Alkartasunak aurkeztu zuen eta Victoriano Gallastegik eta bere alderdikideek aldeko botoa eman zuten, onartua izan zelarik EA, HB eta PNV-ren botoekin- bakarrik PSOEren bi botoak izan ziren aurkakoak-.

Hiru hilabete geroago, ekainaren 29an, likidazioari hasiera ematea erabaki zen Patronatu bileran Gallastegi jaunak ez zuen bere konpromezua bete, are gehiago, likidazioaren aldeko botoa eman zuen.

Gogora dezagun zein izan den EAren erantzuna konpromezu honekiko: amnesia, badirudi ez dutela gogoratzen eurak izan zirela mozioa aurkeztu zutenak.

Benetan, ez dut uste Bergarako UNEDek hau merezi duenik, ez da Bergarako herriak ere.

FELIX ASKASIBAR (HBKO ZINEGOTZI OHIA)

### Datorren astean ez da Berrigararik izango

**Datorren astean ez da Berrigararik kaleratuko. Abenduaren 6an eta 8an, Konstituzio eta Kontzeziño egunak direla eta, ezin izango dugu asteroko lana normaltasunez egin. Beraz, abenduaren 15era arte ez duzu errebistarik jasoko etxean. Ordura arte, ondo pasa jai egunak.**

## Tiiira biraka

ALEX UGALDE



### ♦ Berrigara lehiaketak

Abenduaren 11n amaituko da Berrigarak antolatutako kazetaritza eta erretratu zaharren lehiaketetarako lanak entregatzeko epea. Kazetaritza lehiaketan bi kategoria izango dira, 16 urtera arte lehena eta hortik gorakoena bigarrena. Erretratuen lehiaketan, berriz, ez da adin mugarik izango. Sari bikainak banatuko dira. Argibideak 76 03 97 telefonoan.

### ♦ Asanblada Musika Eskolan

Astelehenean, abenduak 4, Musika Eskolako Ohizko Asanblada Orokorra egingo da Musika Eskolako entsaiu aretoan. Lehen deialdia 7etan izango da eta bigarrena orduerdi beranduago. Besteak beste, aurreko batzarreko aktaren onarpena, ikasturterako planteamenduak edota zuzendaritza batordeko kideen hautaketa aztertuko dira.

**HILDAKOAK**

**Juan Garitano Lizarralde**
Azaroak 27, 85 urte

**JAIOTAKOAK**

**Gorka Fernández Goenaga**
Azaroak 22
**Maite Núñez González**
Azaroak 27

# Bergarar presoen inguruko bi mozio aztertu ziren Plenoan


Senideakeko kideek entzierroa egin zuten Udaletxean.

Alkatea eta Senideakeko kideen arteko eztabaida gogorrak izan ziren asteleheneko ez-ohizko Plenoan. Aurretik bergarar presoen inguruko bi mozio aztertu ziren. Lehenbizi HBk aurkeztutako mozio alternatiboa irakurri zen. Bertan, besteak beste, *"PSOEk diseinatu eta EAJk babestutako"* dispertsio politika salatu, presoak herriratzea eskatu eta Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Batzordearen efikazia falta salatzen zen. Mozioaren botazioan HBk baiezkoa eman zuen eta udal gobernua osatzen duten EAJ, EA eta PSE-EE alderdiak, berriz, kontra azaldu ziren. Jarraian EAJren mozioa aztertu zen. EAJk biolentzia uztea eskatzen dio ETAri eta MLNVri aipatutako testuan. Era berean, presoen gerturatzea eta baldintzapeko askatasunaren aplikazioa eskatzen zen, Plenoa beharrezko jestioak egiteko prest azalduz eta Giza Eskubideen Batzordeari linea horretan lan egiteko eskatuz. Mozioa udal gobernuko alderdien botoekin onartu zen.

Boto esplikazioan Plenora hurbildutako herritarrak eta alkatearen arteko eztabaida zabaldu zen. Pleno aretoan bi pankarta zabaldu ondoren, Senideakeko kideek hitza eskatu zuten. Joxe Lazkano Senideakeko kideak azaldu zuenez, alkateak ez zuen beraiekin izandako bileran eman zien hitza bete. Lazkanok esan zuenez, bilera horretan alkatea EAJren mozioa Senideakekoei ezagutzera emateko prest azaldu zen bi aldeak kontsentsuatutako mozio bat Plenora ekartzeko. Senideakekoek mozioa ez bidaltzea leporatzen zioten alkateari eta alkateak Senideakekoak mozioa jasotzekotan gelditu zirela erantzun zien. Pleno aretoan alkateari zuzendutako irainak entzun ahal izan ziren eztabaidan zehar. Alkateak EAJren mozioa eta Senideakekoa berdinak zirela adierazi zuen eta publikotik, berdinak baldin baziren, Senideakekoa onartzeko eskatu zioten. Alkateak aurrerapausu bat ematen zela azpimarratu zuen. Ez ziren akordio batera iritsi eta Plenoak aurrera egin zuen. Jarraian, HBko zinegotziek eta publikoaren gehiengoak Pleno aretoa utzi egin zuten.

Senideakeko kideek (25 bat lagun) bilera bat egin zuten Udaletxe atarian eta, protesta modura, gau osoa Pleno aretoan igarotzea erabaki zuten. Prentsaurrean alkatearen engainua salatu zuten, beraien asmoa mozio bateratu bat aurkeztea baitzen.

Zure konfidantzako denda
LASAGABASTER
Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27
ARRASATE

### ◆ Senideaken salaketak

Bergarako Senideakeko kideek 30 salaketa aurkeztu zituzten astelehenean Bergarako Epaitegian, presoak beren zigor kartzelak Euskal Herrian bete eta kondenaren hiru laurdenak bete dituztenentzat baldintzapeko askatasuna eskatuz. 26 salaketa Estatuko kartzeletan diren preso bergararrei buruzkoak ziren eta beste laurak beraien kondenaren hiru laurdenak egin dituzten bergararrenak. Aipatutako salaketetan presoak bere ingurune sozial eta kulturalean mantentzearen garrantzia azpimarratzen da. Bestalde, gaur ostirala arratsaldeko 8etan Senideakek deitutako manifestazioa izango da.

### ◆ Justo Garãteren alarguna hil zen

Aurreko astebukaeran Itziar Arostegi Justo Garateren alarguna hil zen Arjentinako Mendoza hirian. Bergarako Udalak samin telegrama bat bidali zion familiari. Orain dela urte asko Arjentinara bizitzera joan arren, Itziar Arostegi eta Justo Garatek Bergararekin harreman hestua mantendu izan zuten.

### ◆ Diapositiba lehiaketa

Pol-Pol Argazki Taldeak, Bedelkarren laguntzaz, diapostiba lehiaketa antolatu dute. Partaideek 24 x 36 neurriko 5 diapostiba aurkeztu beharko dituzte. Lanak entregatzeko epea abenduaren 14an izango da zabalik eta lanak Argazki, Kiñu eta Foto Sistema dendetan jasoko dira. Sari ematea abenduaren 18an arratsaldeko 8etan Pol-Polen egingo da.



1996-97 ikasturtean hainbat aldaketa jarriko dira martxan hezkuntza mailan. ARTXIBOA

# Bailarako hezkuntza batzordea eratu zen aurreko astean

## *Hezkuntza sailaren ikastetxeen mapa aztertzeko*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak ikastetxe publikoei buruzko mapa ezagutzera eman ondoren, aurreko astean Deba Garaiko hezkuntza batzordea eratu zen.

Hezkuntza Sailak Deba Garaiko eskualdea bi zatitan banatu du. Behe aldean Antzuola, Bergara, Elgeta eta Soraluze egongo lirateke. Horren arabera, lehen hezkuntza San Martin ikastetxean, Antzuola eta Elgetako herri eskoletan eta Soraluzeko J.M. Del Moral eta Soraluzeko Ametsa Ikastolan emango litzateke. Derrigorrezko bigarren hezkuntza, berriz, Miguel Altuna eta Ipintza institutuetan eta Soraluzen egitekoa den I.E.S. Institutuan.

Hortik aurrera, 16 urtetik gorako ikasleek bigarren hezkuntzaren ondorengoa egiteko aukera izango luke Miguel Altuna eta Ipintza institutuetan. Bertan 3 aukera izango dira: Gizarte garantiako programak (atzean geratzen diren ikasleei zuzendutako lan praktikak), Lanbide Heziketako erdi maila eta, azkenik, LOGSE Batxilerra (honetan Arteak, Natur Zientziak eta Osasuna, Gizartea eta Giza Zientzia eta Teknolojiaren artean aukeratu beharko da). Ondoren unibertsitate ikasketak edota goi mailako lanbide heziketa egin ahal izango da.

Hezkuntza Batzorde ezberdinen balorazioak jaso ondoren, Hezkuntza Sailak urtarrilean hartuko du erabaki definitiboa. Bestalde, oraindik ez da zehaztu ikastetxe pribatuek izango duten papera.

INFERNUKUA TABERNA
Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Pepelu
Ilepaindegia
Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA




UNEDen berregituratzearen kontrako 5.000 sinadura inguru jaso dira.

# UNEDeko Patronatoa Hezkuntza Saileko ordezkariekin bildu da

## *Bileran tratatutakoa ez da prentsara zabaldu*

UNED zentroa zuzentzen duen Patronatoko kideak Jaurlaritzako Hezkuntza saileko ordezkariekin bildu izan dira egunotan. Hala ere, Victoriano Gallastegi alkateak ez du jakitera eman nahi izan bertan aztertukoa: *"Patronatoak printzipioz gerente bat izendatu du eta berak eman beharko ditu beharrezko azalpen guztiak. Prozesu bat martxan dago eta Patronatoaren plana aurrera doa. Despidoak? Ideiarik ere ez. Erabakiak ez dira momentuan hartzen, itxoin egin beharko da. Hala ere, ni ez naiz horri buruz berba egiteko pertsonarik egokiena".* BERRIGARA Patronatoak izendatutako Gonzalo Sacristán gerentearekin harremanetan jartzen ahalegindu da baina ezinezkoa izan zaigu.

Bestalde, UNEDen berregituratzearen kontrako 5.000 sinadura inguru jaso dira dagoeneko. Horrez gain, sinadura orriak entregatzeke duten guztiei dei egiten die UNEDeko langileek orri horiek lehen bait lehen UNEDera eramateko.

Era berean, Deba Garaiko hainbat euskara elkarte (Jardun elkartea tartean) Euskal Kultur Departamentuaren aldeko idatzi bat bidali die euskalgintzan lanean ari diren pertsona ezagunei. Dagoeneko 100dik gora atxekimendu sinadura jaso dituzte.

UNEDeko langileek zentroaren berregituratzearen kontrako manifestazioa egin zuten larunbatean.

### ◆ Deba Garaiko Olinpiadak

Gabonetan Deba Garaiko koadrilen arteko olinpiadak jokatuko dira. Futbito, saskibaloia, eskubaloia, igeriketa edota pelotako probak jokatuko dira. Izen-ematea abenduaren 5era arte izango da zabalik Udaleko Kirol Zerbitzuan, 77 91 67 telefono zenbakian.

### ◆ Musika Eskolako taldeen kontzertua

Musika Eskolako Kamara taldeak, Akordeoi Orkesta eta Abesbatzaren emanaldia izango da gaur arratsaldeko 7etan Novedades arteoan. Sarrera doanekoa izango da.

### ◆ Eskaparate lehiaketa

Aurreko urteetan bezala, Udaleko Kultura Batzordeak herriko komertzioei zuzendutako eskaparate lehiaketa antolatu du Gabonetarako. Eskaparateak abenduaren 5etik 17ra bitartean egon beharko dira ikusgai eta bertan parte hartzeko interesa dutenek Kultur Etxean eman beharko dute izena lehen bait lehen. Lehen hirurentzat 60.000, 30.000 eta 15.000 pezetako sariak egongo dira. Argibideak 76 44 46 telefonoan.

### ◆ Antzuolari buruzko liburuska kalean

Antzuolako Udalak "Antzuolatik Antzuolara" liburuska berrargitaratu du. Bertan, herria ezagutu ahal izateko, auzotan zehar egiteko 7 ibilbide jasotzen dira. Antzuolako liburudendan eta Bergarako Etxepare-Bilintxen 200 pezetatan jarri da salgai.

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

MUJIKA
Burdinaki denda
Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

# Udal Pilotaleku berriztua larunbatean zabalduko da

**Udal Pilotaleku berriztua larunbatean zabalduko da Eskola dantzataldeak eskainiko duen ikuskizunerako. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak joku eta ikuskizunetarako duen araudia betetzen ez zuenez, frontoia egokitu egin behar izan da eta sei hilabetez obretan izan ondoren ateak zabalduko ditu berriz ere.**



Ostiralean eman zitzaizkion frontoiari azken ikutuak. Nobedade nagusienetakoa errebotea da.

Pazkuetako jaien ostean hasi ziren frontoiko obrak eta aste honetan eman zaizkio azken ikutuak. Anselmo Iñurrategi arkitektuaren proiektuan oinarrituz Mauricio Arregi eraikuntza enpresak izan du lanen ardura. Aurrekontua, 50 milioi pzta.koa izan da.

### Egin diren obrak

Joku eta ikuskizunetarako indarrean dagoen araudia betetzeko ezinbestekoak ziren aldaketak egin dira Udal Pilotalekuan, honako hauek: argindarraren, uraren eta berogailuaren instalazio berriak egin dira. Soinu instalazio berria jarri da, berogailu berriak, galdara gela berria, eta argiztapena aldatu egin da, guztira 750 luxetako potentzia ematen duten fokoak jarriz.



Bestalde, suteen kontrako neurriak hartu dira eta larrialdietarako irteerak egokitu dira, honela, ate berri bat zabaldu da Ibargarai aldera eta sarrera nagusian hiru ate egokitu dira, lehengoak baino zabalagoak eta barrutik kanpora zabaltzen direnak. Sarrera nagusiko ateetako kristalak ere aldatu dira. Komunei dagokienez, behekoak lehen zeuden tokian daude baina berriztu egin dira guztiz. Emakumeentzako 12 komun egin dira. Goian, berriz, emakumeentzat sei komun izango dira eta gizonezkoentzat hiru. Lehen taberna zegoen tokian ezindu fisikoentzat komunak egin dira eta sarrera nagusian ranpa bat eraiki da ezinduentzat. Esan behar da taberna berria egin dela, sarrera nagusitik ezkerraldean, lehengoa baino txikiagoa. Goiko taberna, berriz, zegoen bezala utzi da.

Frontoi barrutik gora igotzeko eskilarak aldatu egin dira eta berriak egin dira, zabalagoak. Kantxara doazen eskilarak ere zabalagoak egin dira. Bestalde, aldagela guztiak berriztu dira, larrialdietarako botikin bat egokitu da eta prentsarentzat beste gela bat.

### Errebotea

Gehien nabarmentzen den nobedadea errebotearena da. Honen gainean eserlekuak jarri dira eta azpian biltegi txiki bat. Egin diren aldaketen ondorioz, frontoi berriak lehen baino 100 eserleku gutxiago izango ditu, guztira 1.056. Eserlekuak lehen zeuden berdinak dira eta baita markagailua ere.

### Frontoi berdea

Hasierako asmoa kantxako paretak zuriz pintatzea bazen ere azkenean berdez margotu da frontoiko errentarien eskaerak kontutan izan ondoren. Partiduak telebistatik ikusteko egokiagoa da berdea eta esan behar da telebista kamarentzat lekuak egokitu direla.

Frontoiak zabaldu ditu ateak. Ikusteko dago goi mailako pelota partiduak antolatuko diren ala ez, argi baitago gaur egun noren esku dagoen pilota.

*Ekolojia*

# Ornitologian hasteko gomendioak



**IÑAKI IRIZAR**
*(Mendia Bizirik)*

**- Zer da ornitologia? Non praktikatzen da gehien?**

- Hegaztiak ezagutu eta ikertzen duen zientzia eta afizioa litzateke. Europa mailan, iparraldeko herrialdetan oso garatuta dago. Hortara dedikatzen diren afizionatu asko dago, Inglaterran batez ere. Txoriak ikusten eta ikasten milaka eta milaka pertsona ibiltzen dira han. Hemen mendi elkarteak dauden moduan, Inglaterran ornitologia elkarteak oso popularrak dira. Elkarte hauek inguruneаren kontserbazio mailan pisu haundia daukate eta askotan hegaztiendako arriskuan zeuden inguruneak erosi dituzte erreserba pribatuak egin ahal izateko. Era berean, ornitologia inguruko publikazio asko kaleratzen dira.

**- Hemen egoera oso desberdina da...**

- Orain dela gutxirarte oso jende gutxi dedikatzen zen ornitologiara, hegaztiak ezagutzera. Txoriak prismatikoekin ikusten egonez gero, jendeak harriduraz ikusten zintuen. Azkenengo urtetan, berriz, egoera aldatzen ari da zorionez. Afizionatuak gero eta gehiago dira eta horrek erakusten du inguruarekiko errespetoa eta interesa hazten ari dela. Pol-Polen ere urtean 3 bat irteera antolatzen ditugu eta interesa duten guztiak guregana etor daitezke.

**- Zein ekipo behar da ornitologoa izateko?**

- Oso material gutxirekin ornitologia sakontzen has gaitezke. Ornitologo gehienek oinarrizko bi gauza erabiltzen dituzte: prismatikoak eta hegaztiak identifikatzeko gida bat. Prismatikoak aukeratzerakoan bi gauza izan behar dira kontutan: arinak izatea eta aumentoa gehiegizkoa ez izatea (8 x 30koa oso egokia da).

Gidei dagokienez, merkatuan asko dira baina nik bi aipatuko nituzke, biak Omega argitaletxearenak: "Guia de las aves de España y de Europa" (Bruun) eta "Guia de campo de las aves de España y de Europa" (Peterson). 10.000 pezetagatik ekipo majoa izan dezakegu.

**- Inguruan zer topatu dezakegu?**

- Gure ingurua nahiko ondo dago ornitologian murgiltzen hasteko. Herriko parketan, esate baterako, basoetako hainbat espezie aurki ditzakegu eta Deba ibaian, berriz, nahiz eta ura oso zikina joan, puntu batzutan ibaiertza dexente samar mantentzen denez, basahatak, ur-oiloak edota martin arrantzaleak (inguruan) ikus daitezke.

Bestalde, negua aprobetxatuz, Urkulu oso ondo dago. Oso erreza da bertan 20 espezie bereizten ikastea. Batzuk aipatzekotan, koartzak, ubarroiak, kopeta zuriak edota 5 ahata espezie ikus daitezke. Dena den, edozein lekutan espezie asko aztertu daitezke. Gure eskualdean 100 bat zenbatu dira dagoeneko.

## "Gure ingurua nahiko ondo dago ornitologian hasteko, hegazti dexente daude"



Deba ibaiako hainbat puntutan ur-oiloak ikus daitezke.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-A
Barrenkale, 31 Tfnoa: 76 20 02 BERGARA




Asko dira unibertsitatera ikastera joaten diren bergararrak. Batzuk pisua hartzen dute unibertsitatetik gertu, beste batzuk, berriz, erresidentzian bizi dira. Bestalde, gero eta gehiago dira egunero autobusez joaten direnak.

# Unibertsitatera!!

## Gero eta gehiago dira autobusez doazenak

**Bergarar ugari ari da herritik kanpo ikasten. Denek egin behar izan dute aukera: erresidentzia, pisua edo egunero joan eta etorri. Duela gutxi arte jenderik gehiena pisura joaten bazen ere, gaur egun gero eta gehiago dira egunero joan eta etorri autobusez egiten dutenak.**

Etxetik kanpo ikasi behar duten askok lehenengo urtean erresidentziara joatea erabakitzen dute.

**"Erresidentzia: pisu haundi bat"**

Maria Urzelai aurten hasi da Leioan kazetaritza egiten eta erresidentzian dago. *"Autobusez joan eta etorri egitea planteatu ere ez dut egin, denbora galtzea iruditzen zait. Nik pisua nahi nuen baina lehenengo urtea zela eta gurasoek nahiago zuten erresidentzian egotea. Ez dut uste lau urte erresidentzian*

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09






LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

*egingo dudanik, pisuko esperientzia izatea ere gustatuko litzaidake".*

Maria Derioko erresidentzian dago, beste 90 bat lagunekin. *"Ez da obiko erresidentzia bat eta oso gustora nago: mistoa da, ez dugu ordutegirik, garbiketa orokorra egiteko emakume bat dago, baina osteantzeko lanak norberak egin behar ditu: jatorduak, plantxa, garbiketak... pisu haundi bat bezalakoa da. Erresidentzia bi zatitan banatuta dago, zati bakoitzean : sukaldea, armairuak, hozkailua, mikroondasa... daude. Zuzendariaz gain alde bakoitzak bere arduraduna du, baina ez dago inor gu zaintzen, oso librea da".*

## "Berdin da pisuan edo eresidentzian egotea; garrantzitsuena da gustora egotea" Pilar de la Cruz

### Monjen erresidentzia

Pilar De La Cruz Donostiako Esklaben erresidentzian dago. *"Autobusez ibiltzea gogorra da; pisuan ezezagunekin sartu eta askotan konbibentzia arazoak izaten dira... Aurten lehenengo urtea nuela eta azkenean erresidentziara etortzea erabaki genuen. Datorren urtean ikusiko dugu. Gainera etxean lasaiago daude eta ni ere ez naiz konplikatzen, egunero platera beteta dut"* Pilarrentzat dena izan da berria: jende berria, irakasleak, eskola lagunak, giroa... *"Hasieran kezkatuta nengoen gogorra egiten baita ohitzea, jendea ezagutzea... baina hori pisuan ere gertatzen da. Orain oso gustora nago".*

Berriei egiten zaizkien nobataden beldur zen baina usteak ustel. *"Egin ziguten nobatadarekin barre besterik ez genuen egin: berriok "Todas para uno", telebistako lehiaketa egin behar izan genuen. Nik lehiakide batena egin nuen, primeran pasa genuen".*

### Gustoko erresidentzia

Pilar diseino egiten ari da eta lan asko izaten du. *"Goizetan eskolara joan eta arratsaldetan lanak egiten ditut, marrazketa teknikoa eta inoiz eman ez ditudanez kosta egiten zaizkidalako".*

Eskola Grosen izan arren, erresidentzia Antiguon du. *"Grosen beste erresidentzia bat bazegoen baina ez zitzaidan gustatu. Urte osoan leku batean egon behar eta oso garrantzitsua da gustora egotea".*

41 lagun daude eta ia denak gela banatan daude: ohea eta mesanotxeaz gain, ikasmahaia, lababoa, liburutegia eta kortxoa dute. *"Zure gelan nahi duzuna egiten duzu eta nahi duzun bezala eduki dezakezu, norberak jaso eta txukundu behar baitu. Nik, esaterako, altzarien ordena aldatuta dut eta ezer ez didate esan".* Denentzat, berriz, bi piano daude,



Autobusez gero eta ikasle gehiago ibiltzen da. Egunero Eibarrera eta handik Donostia edota Bilbora irtetzen dira autobusak.

FERNANDEZ
Oihal puskak
Oihalak
San Antonio, 3 ☎ 76 22 93
Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

Maxim's
☎ 76 20 61

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

ikasgelak, denbora pasako gelak, terraza itxi bat, telebista eta bideo gela... Hitzaldiak ere izaten dira: *"guk aukeratutako gaiei buruzko hitzaldiak izaten dira".*

**"Azkenaldian ez dugu haragirik eta arrainik jan baina fruitu lehorrak, frutak eta yogurrak, asko" Rikardo Landa**

### "Erresidentzia ez da gogorra"

Pilarrek dioenez ez dago aparteko diziplinarik: *"Etxean kanpoan edo biritik kanpo zauden sarreran jarri behar duzu; ez da gu kontrolatzeko modu bat, norbaitek deituz gero lokalizatuta egoteko baizik. Jatorduetarako ordutegia dago, baina bestela ez dago aparteko ezer. Beste batzuekin bizi zarenez gero errespetua da eskatzen dena, besterik* ez. *Hori, dena den, nire ustez denean behar da, pisuan ere bai".* Gaueko 11etatik goizeko 7etara atea itxita egoten da eta telefono deirik ez da pasatzen. Urtean hiru egunetan izaten dira afari bereziak eta egun horietan goizeko 4ak arteko baimena izaten dute.

### Erresidentzian, autobusez eta orain pisuan

Nerea Aizpiri turismo ikasten hasi da aurten Donostian. Denetarik probatu du: erresidentzia, autobusa eta orain pisua. Salmenta ikastaroa egiten ari zen bitartean, Derion, Maria Urzelai dagoen erresidentzia berean egon zen. *"Urte t'erdian egon nintzen, baina ez zen ohiko erresidentzia bat eta ondo egon nintzen".* Gero Irlandara joan zen eta aurten Turismo ikasten hasi da. *"Hasieran autobusez hasi nintzen. 3. asterako pisuan sartu behar nuela garbi nuen. Eskola arratsaldetan dut eta goiza etxean konturatzeke pasatzen zitzaidan. Nire kasuan autobusa denbora galtzea zela iruditu zitzaidan".*

### Pisuko jirak

Nerearentzat ez da zaila izan pisua aurkitzea. *"Bi pisu ikusi ditut baina ez dut zalantzarik izan, gelan bakarrik nagoelako aukeratu dut hau".* Lau neska daude pisuan eta gela bana, komuna, sukaldea, sala eta balkoia dituzte. *"Telefonoaz gain, telebista eta bideoa ditugu".* Bitxiak gainera, hipermerkatu baten iragarkitik hartutako argazki paperak baitira. *"Ez dugu telebista beharrik, goizeko ordubiak arte eta hitzegiten egoten gara. Oso giro ona dugu, primeran pasatzen dugu. Jokoak, kartak ditugu eta ez gara aspertzen".* Bizilagunekin ez dute inolako arazorik. *"Oso ondo konpontzen gara; aldamenean lau andra zahar bizi dira eta patioa garbitzea tokatzen zaigunean ere eurek garbitzen digute".*

Bakoitzak bere jatorduak prestatzen ditu. *"Denok gusto desberdinak ditugu eta bakoitzak prestatu eta garbitzen du berea. Etxetik ekartzen dugu potajea eta saltsa gauzak, bestela guk ja-*


Erresidentzian daudenek diote pisu haundi bat bezalakoa dela.


Zatoia
Boutique
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

MUGICA
GOXOTEGIA

Artekale, 3
☎ 76 10 34
• Pastelak
• Errellenoak
• Tostoiak
• Tartak


☎ 79 12 38
Arientza auzoa
ARETXABALETA
Mitartegarai
Jatetxea
Gurutze Mujikaren Pintura erakusketa



Pisua aukeratzen dutenek askatasuna da nabarmentzen dutena. Klase ordutatik kanpo, eta liburuak hartu aurretik, beti izaten da jolaserako unerik.

*nari azkarra egiten dugu: pasta, arroza, patatak, San Jacoboak..."* Pisuak duen onena ematen duen askatasuna da: *"lagunekin afariak egiteko aukera, ostegunetan irtetzekoa..."*

**"Etxera gutxitan"**

Rikardo Landak bigarren urtea du aurten Burgosen, arkitektura teknikoa egiten dihardu. Iaz hamabostean behin etortzen zen etxera. *"Etxetik kanpo nengoen leben urtea zen eta lagunen hutsa sentitzen nuenez askotan etortzen nintzen. Aurten azken zubitik ez naiz joan".* Iaz erresidentzia misto batean egon zen Rikardo. *"Oso erresidentzia ona zen, denetarik baitzuen: futbol zelaia, gimnasioa, taberna, Canal Plus... eta jakina, ikasten ez beste gauza batzuetan ematen nuen denbora eta notetan nabaritu zen".*

Kostatzen zenarekin horrela ezin zuela jarraitu eta erresidentzian ezagututako beste hiru lagunekin pisuan sartu zen.

**Arazoa: Zer jan?**

*"Erresidentzia oso librea zen, ez genuen sartzeko ordutegirik, baina pisuan intimitatea dut, gelan bakarrik bainago; nahi duzuna eta nahi duzunean jan dezakezu... Txarrena da zer jan pentsatzea. Bazkaria egiteko liburu batetik moldatzen gara, baina afaritarako zer jarri? hori da guk dugun arazorik handiena. Bakarrik lehenengo platera jaten dugu, azken hilabetean haragirik eta arrainik ez dugu jan, baina fruitu lehorrak, fruta, yogurrak eta asko jaten ditugu. Esan daiteke barazkijale egin garela, baina ez borondatez, diruagatik baizik".*

**Ostegunetan parranda**

Burgosen ere ikasleek ostegun gauetan dute irtetzeko ohitura. *"Afariak egiten ditugu eta festa ugari antolatzen dira. Ostiraletan oso jende gutxi egoten da klasean".*

Rikardok eta pisuan mikroondasa eta telefono mugikorra dute. *"Telefono finkoa baino 10.000 pezeta merkeago ateratzen zitzaigun eta mugikorra jartzea pentsatu genuen".*

**Autobusak beste lan batzuk egiteko aukera**

Gero eta gehiago dira autobusaren aldekoak eta ondorioz egunero joan eta etorri autobusez egiten dutenak. Ugutz Basauri eta Maria Gomez horien artean daude. Ugutz aurten hasi da geologia egiten eta Mariak hiru urte daramatza eguneroko joan-etorria egiten.

Maria Aixolak antolatutako autobusetan ibiltzen da. *"Lehen jenderik gehiena pisuan geratzen zen, baina orain Aixola ikasleen elkartea eta Pesari esker autobusak eroso eta merke ditugu. Zenbat eta jende gehiago ibili, orduan eta aukera hobea izango dugu".* Autobusek Eskoriatzatik irten eta Eibar bitarteko ikasleak hartzen dituzte. Eibarren autobusek Donostiarako edo Bilborako bidea hartzen dute. Maria arratsaldez joaten da Leioara: 13:30etan ateratzen da eta bueltatzeko hiru ordutegi desberdin ditu aukeran.

Hilean 12.500 pezeta ordaintzen du. Bidean ordu t'erdi egiten du baina ez zaio denbora galtzea iruditzen, irakurtzeko edo aprobetxatzen du eta.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA


LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

# HIESaren inguruan nahikoa informazio jasotzen al dugu?



**Mikel Agirrezabal**

*15 urte, ikaslea*

Gehiago jaso beharko genukeela uste dut. Elkarte batetik ikastetxetara etorri, ikastaroak eman, egoera nola dagoen azaldu... eta horrelakoak.



**Rafael Macedo**

*29 urte, langilea*

Informazioa badago baina ez dut uste kaso handiegirik egiten diogunik.



**Garbiñe Arroyo**

*28 urte, langilea*

Egia esan oraindik betiko topikoetan gaudela uste dut. Ez dakit gauza berririk esaten duten. Preserbatiboaren kontura murrizten direla ematen du.



**Pedro Narbaiza**

*64 urte, langilea*

Normala iruditzen zait. Nik uste dut ondo dagoela ematen den informazioa. Hala ere, igual oraindik ez dakigu gehiegi.



**Estibaliz Larrinaga**

*39 urte, langilea*

Telebistan ematen dute baina ez dakit ze puntutaraino ondo bideratuta dagoen. Eskola mailan adibidez ez dut uste gehiegi lantzen dugunik.



**Marian Canseco**

*32 urte, langilea*

Oraindik bastante falta dela uste dut. Aurreratzen ari gara baina, nere ustez, jende gazteenari informazio gehiago eman behar zaio.


KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

SANTOS
IRRATI-TB
ELEKTRAGAILUAK
SUKALDE ALTZARIAK
ARGIZTAPENA
ANTENA KOLEKTIBOAK
TB, BIDEO ETA SOINU APARAILUEN KONPONKETA
Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

ZURUTUZA
HARATEGIA • URDAITEGIA
Urteaga kalea, 9 BERGARA
☎ 76 08 68

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



## *Beste urte batez nazioarteko eguna*

Beste behin ere HIESaren eguna ospatu dugu eta, hala edo nola, HIESa ere hor dagoela gogoratzen gara.

Niretzat jai egun bat da, Oiartzungo Harri-beltzako lagunekin txikiteo herrikoia eta kontzertua antolatu baititugu (denok gonbidatuta zaudete), urteko beste 364 egunetan egiten dugun lan astunetatik libratu eta ondo pasatzeko.

Izan ere, HIESa ez da egun bateko kontua, geure ondoan bizi den eta berarekin bizitza konpartitzen ikasi beharreko kontua baizik.

Askok eta askok uste du, horrela komeni zaielako segurunenez, kutsatuta gaudenok garela guztiaren erantzule; prebentzio neurriak hartu, seropositiboak garela guztiei jakinarazi, HIESaz informatu, beste seropositiboei lagundu... geure ardurak direla; baina ahaztu egiten zaie HIESa guztion arazoa dela eta, are gehiago, guztion erantzunkizuna, denok bizi baikara HIESaren garaian.

Esan didatenez, orain dela gutxi HIESaren inguruko mobida burutu zen Bergaran: kalejira, afaria, irratsaioa... Zorionak eman eta aurrera jarraitzeko animatu nahi zaituztet; dirudienez, zerbait mugitu baita Bergaran, eta hori mesedegarria da denontzat.

Besarkada bat herriko familia eta lagunei, Oiartzunen ere norbait gogoratzen da zuetaz.

**Lierni IRIZAR**



## *Gaiztoak gero!!*

Gerta liteke irakurlea gaiaz aspertuta egotea, ezer berririk ez esatea honetan. Baina barrenak eskatzen dit, naizenak bultzatzen nau, garenak behartzen nau. Milaka lagunen euskalduntzea, alfabetatzea, eta euskal kulturan murgiltzea ahalbideratu duen Euskal Kultura Departamentua ixtea beldurgarria da.

Ezkutuka egiteak erabakia itzulezin bihurtzea bilatzen zuen, baina horretaz gain, eta batez ere, ulertezina, justifikaezina eta barkaezina dela adierazten du. Eta erabakia hartu dutenek buruan nolako ideiak darabiltzaten garbi adierazten du. Hona hemen:

Universidad. Honi buruzko ideia atzerakoia. Atzerrian euskara eta euskal kulturari departamentuak irekitzen dizkieten bitartean, Bergaran itxi egiten da.

Nacional. Jakina. Batzuk oraindik konturatzeke daude "n"aren esanahiaz. Patronatokoek, beren kargoei dagokien bezalaxe, ondotxo dakite. Nacional Español. Beraz, zerbait soberan baldin badago Euskara da.

Educación. Lehengo atzerakoikeriaren aritik matasa. Susmoa dut, ziur nagoela ez esatearren, edukazioa, heziketa, jakituria gutxien daukatenak horrelako erabakiak hartzen dituztenak direla. Uste baitute hemen zein Badajozen zerbitzu unibertsitarioa eskaintzeko egiten diren inbertsioak berdinak direla.

Distancia. Herritik urrundu, erabakiak urrundik hartu, (bertakoek eta bertatik hartu dituztela badiote ere), Euskal Herritik aldendu. Horixe izan da Herri honetan izan diren jauntxo guztien jokaera. Zera eskatuko nieke gaurkoei, hegoiari men egin eta haren arabera besteak makurtarazten saiatu beharrean, hurbil daitezeela hego haize zoro horren sorlekura, beren ipurdiak eta sabelak askoz beroago eta beteago egongo direlako. Aurrekoren bati bezalaxe aurkituko diote senadore edo antzeko karguren bat.

Bitartean jarri digute beste lan bat euskaldunoi. Hala ere eutsio erronkari.

**Fermin LAZKANO**

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

OILAGORRA
TABERNA
Barrenkale, 21 BERGARA




PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

## Aranzabal Lagunartea Anoetan

**Aranzabal Lagunartea**ko kideek lehen irteera egin zuten larunbatean **Reala** eta **Barcelona**ren arteko partidua ikusteko. Bazkalostean, 50 lagun inguru abiatu ziren autobusez Donostiara. Alde Zaharrean poteatu ondoren, pankarta eta guzti Anoetara joan ziren eta han lan ugari izan zuten Realeko jokalariak animatzen, are eta gehiago katalandarren presentzia nabaria zela kontutan izanik. Realak partidu amaieran lortutako berdinketari esker nahiko pozik itzuli ziren Aranzabalen lagunak Bergarara. Espero dezagun hurrengo irteeran (Bilbora beharbada) Realaren garaipen bat eta Aranzabalen partidu borobila ikustea.




## Aulki berriak Goiko Plazan

Egunotan **Goiko Plazako aulkiak** berriztu dira. Epaitegi aurreko aulkiak egoera kaskar samarrean zeuden azkenaldian eta Udalak berrizteko erabakia hartu zuen. Zenbait kasutan aulki zaharrak aprobetxatzeko aukera izan da baina gehienak guztiz aldatu dira, aulki berriak jarriz. Kontua da 18 aulkiek aurpegi berria daukatela eta bertan egoten diren herritarrek asko eskertuko dutela. Aulkiak konpondu eta berrizteak 400.000 pezeta inguruko aurrekontua izan du. Era berean, udal brigadak inguruko paretak eta plazako zorua txukuntzeko lanak burutu ditu.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21
Zumelaga
JATETXEA
etorri eta galdetu!!
EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 ☎ 76 16 14
Ibargarai, 8 ☎ 76 54 73



## Futbolin maisua

Futbolean bezain ondo aritzen da futbolinean **Ibon Larrañaga** bergararra. Izan ere, Aloña Mendiko jokalariak LAMek oraintsu Gasteizen antolatutako futbolin txapelketa irabazi baitzuen. 34 partaide izan ziren "Pipers" tabernan jokatutako txapelketan eta Bergaratik 10 lagun joan ziren. Azken faserako 16 sailkatu ziren eta horien artean 7 bergarar izan ziren. Gure ordezkariak primeran aritu ziren eta lehendabiziko 5 postuetan Ibon Larrañaga txapelduna, **Iñaki Gabilondo** (hirugarrena) eta **Igor Alberdi** (5.a) izan genituen. Ibonek bigarren eskuko kotxe bat irabazi zuen. Ibon eta Iñaki Gabilondo elkarrekin aritzen dira binakako futbolin txapelketetan eta saria erdibana egingo dute aurretik hitzartu bezala. Kotxea ezin erdibitu eta saldu egingo dute.

## Ikasleentzako kontzertua



**Udal Euskaltegiak** antolatuta, aurreko astean **Joseba Tapia** soinujolea, **Michel Doucau** kitarrajolea eta **Luis Camino** perkusionistaren kontzertua izan zen **Zabalotegiko aretoan**. Diputazioak ikastetxeei zuzendutako zirkuituaren barruan, Udal Euskaltegiak ikasleentzako trikitixa emanaldia ekarri zuen. Joseba Tapiak kantuen inguruko azalpenak eman zizkien ikasleei eta hauek primeran pasatu zuten musikarien doinu alaiekin. Pena bakarra dantzarako aukerarik izan ez zutela...

## Zertan *dihardute* ba?



**Manu Muniategi**
29 urteko margolari bergararrak lehen saria lortu zuen Lizarra Hiriko II. Margo Bienalean. Muniategik 500.000 eskuratu ditu sari modura. Bergararrak Arte Ederretako ikasketak burutu zituen Leioako Fakultatean eta, azken hiru urteetan, Gipuzkoako Diputazioak artista gazteei zuzenduriko Arteleku zentroan lanean izan da. Bertan hainbat margolari eta korronte ezberdinetako lanak ezagutzeko aukera izan du Muniategik. Hiru urte bete ondoren, oraintsu Arteleku zentroa utzi behar izan du eta orain beste kolektibo batzurekin ari da lanean Manu Donostian bertan.

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Amets
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
• Zango erremolkeak
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

# Fernando Idigoras

**Fernando Idigoras (63 urte) bailarako odol emaleen ordezkaria da. Aurretik, besteak beste, zine operadorea (aitari laguntzen), mantenimendu arduraduna Lasagabasterren, pake epailea eta zapataria izan da. Odol emaleetan gazteen laguntza botatzen du faltan. Bergaran 800 emale aktibo dira.**

**- Odol beroa ala odol hotzekoa?**
- Berokoa naizela uste dut...
**- Bada odol urdineko jenderik?**
- Beraien ustez bai.
**- RHari garrantziarik ematen zaio?**
- Neuk ez behintzat. Guretako danak dira berdinak.
**- Zein da odolik amankomunena?**
- O positiboa.
**- Nola errekuperatzen da odola?**
- Segiduan, urarekin, ardoarekin... Norberak nahi duenarekin.
**- Odolosteak atsegin?**
- Bai.
**- Zenbat odol ateraldi egin dituzu?**
- 41 ateraldi, 16 bat litro guztira.
**- Noiz arte jarraitzeko asmoa?**
- Osasunak laguntzen didan bitartean... Baina ateak zabalik daude edozeinentzat.
**- Zein da odol emaleen bataz besteko adina?**
- 50-53 urte.
**- HIESaren agerpena igarri al da odol emale izaterakoan?**
- Bai, baina alde positiboan, 85etik analisiak egiten zaizkiei emaleei.
**- Nora doa Bergaran ateratzen den odola?**
- Donostian dagoen Odol Bankura.
**- Nortzuk dute odol premia gehien?**
- Zaurituak, leuzemia dutenak... etabar luze bat.
**- Hobby bat?**
- Zinea eta sukaldaritza.
**- Non bazkalduko zenuke gustora?**
- Lasanean. Sukaldaritza tradizionala gustatzen zait.
**- Platerrik gustokoena?**
- Buztana eta kokotxak.
**- Nolako pelikulak atsegin?**
- Musikalak, gerrakoak ez behintzat.
**- Yugoslavia ohian pakea izango al da?**
- Irakurtzen dudanagatik ez.
**- Zerk kezkatzen zaitu?**
- Pesa Arrasatera eramateak, izatez (lehengo La Vergaresa) hemengoa baita.
**- Zer egingo du Realak Iruretarekin?**
- Partiduak ez dituzte entrenatzaileek irabazten.



*"Ni neu odol berokoa naizela uste dut. Ez, nik behintzat ez diot RHari garrantziarik ematen, odol denak berdinak dira. Osasunak laguntzen didan bitartean odol emaleetan jarraituko dut. Irureta? Partiduak ez dituzte entrenatzaileek irabazten"*





Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea

Tfnoa: 77 14 24

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## ETXEBIZITZA

Sukaldeko altzariak dituen **pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 46 18.

Aranerrekan **pisua** salgai. ☎ 76 00 39 / 79 27 68.

122 m2ko **pisua** salgai. Lorategiarekin. ☎ 76 33 85.

**Garaje** bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 21 39.

**Pisu** amueblatua saltzen da Zubietan. ☎ 76 62 44.

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** dut alokatzeko Zurraderon. ☎ 76 37 69.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Lokal** bat saldu edo alokatzen da Ozaetan. ☎ 76 47 74 .

**Lokala** alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

**Pisu** amueblatua alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

**Pisua** salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

**Garajea** alokatzen da Burdiñaten. ☎ 76 18 52.

**Pisu** amueblatua salgai Masterrekan. ☎ 76 53 12.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

## DENETARIK

**Umeen** kotxe-silla bat erosiko nuke. ☎ 76 46 54.

**Zibro-kamin** estufa bat (RCA-86 B modeloa) salgai. ☎ 76 21 90.

**Eski** denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (Iulen).

**Honda** CBR 600 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

**Mendiko** bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

**Mendiko** bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koadroa salgai. ☎ 76 47 94.

**Peugeot** Scooter motorra egoera onean salgai. 65 cm3. Prezio interesgarria. ☎ 76 46 18.

**Ford Transit** furgoneta salgai. ☎ 76 40 28.

**Sukalde** berri berria saltzen dut. Prezio intesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

**Kerosenozko** estufa salgai. ☎ 76 58 28.

**Estufa** japoniar bat salgai. 30.000 pezeta. ☎ 76 55 63.

**Tosai** kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 07 61.

Formato erdiko **Zenza Bronika** kamara salgai. ☎ 77 12 28 (Jabier).

**Ford Fiesta** kotxea (SS-S) egoera onean saltzen dut. 100.000 pezeta. ☎ 76 37 59.

## LANA

**Aleman** klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Matematika,** fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72.

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Gutxitu psikikoen hezitzaile** batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

**Esperientziadun** neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Ingeles Filolojia** duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma) / 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

**Etxeko** lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

**Etxeak** garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Matematika,** zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9-Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
· BERGARA ·

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
*Euneroko janariak / Txitxizotzak*
*Kazolatxoak / Txabierroak*
Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

Aranzabal
OIHALAK
Zubieta, 32 ☎ 76 11 50



*"Era guztietako bildumak egiten ditugu: egutegiak, bitolak, pegatinak, posabasoak...*

*"Erakusketan, Gerra aurreko txanpon batzuk daude, trukerako txapak, oso bitxiak direnak"*

**TXARO ZABALA**, BILDUMAZALEEN PRESIDENTEA

# "Bildumazale izateko nahikoa da pazientzia eta afizioa"

**Herriko bildumazaleek 1972. urtean antolatu zuten lehen aldiz seilu eta txanponen erakusketa. Harrezkero ez dute hutsik egin. Egun hauetan ikus daitezke Kultur Etxean, Bergarako zein Euskal Autonomi Elkarteko hainbat herritako bildumazaleen seilu eta txanponak. Txaro Zabala, Bergarako bildumazaleen elkarteko presidentearekin izan gara.**



Edurne Goirizelaia eta Txaro Zabala, idazkari eta presidentea.

**- Herriko bildumazaleen elkartean pertsona edadetuak biltzen zarete batez ere. Gazteek ez al dute zaletasunik?**

- Egia da gehienak edadetuak garela, baina gaztetxoak ere baditugu. Ugutz Basauri eta Gorka Elortza ere etortzen dira astean birritan egiten ditugun bileretara eta lan txukuna egin dute erakusketa honetarako. Bestalde, esan behar dizut, Presidentea, idazkaria eta diruzaina emakumeak garela eta uste dut kasu bakarra dela, Euskadiko Bildumazaleen Federazioko bileretara joaten garenean, geu izaten baigara emakumezko bakarrak.

**- Zenbat elkarte zaudete Federazioan?**

- Euskal Autonomi Elkarteko 18 elkarte gara, gehienak Gipuzkoakoak. Eibarreko taldea oso indartsua da.

**- Zer ikusi dezakegu erakusketan?**

- Gure elkarteko bildumazaleen eta inguruko herrietakoen seilu eta txanponak jarri ditugu ikusgai. Oso bilduma interesgarriak aurkitu daitezke. Donostiatik etorri ziren joan zen igandean eta bueltatzekotan geratu ziren, gauza berriak aurkitu zituzten eta. Bestalde, Errotalde Jauregiko mataseilua atera dugu erakusketarako.

**"Errotalde Jauregia herritik aparte geratzen da erakusketak egiteko. Dagokionari eskatuko nioke Arostegi Etxea erakustoki bihurtzeko ahaleginak egiteko"**

**- Eta ze motatako jendea dator erakusketa ikustera?**

- Mundu honetan sartuta daudenak, kanpotik ere asko. Baina gero eta jende gutxiago dator. Hala ere, hori beste erakusketetan ere gertatzen da. Errotalde Jauregia herritik aparte geratzen da eta jendea ez da animatzen. Une hau aprobetxatuz, dagokionari eskatuko nioke ahaleginak egiteko Arostegi Etxeko lokala erakustoki bihurzteko.

**- Seilu eta txanponak biltzen dituzue bakarrik?**

- Ez, era guztietako bildumak egiten ditugu: egutegiak, bitolak, pegatinak, posabasoak...

**- Eta zer behar da bildumazale ona izateko?**

- Gauza haindirik ez, pazientzia eta afizioa.

**- Erakusketan ikus daitekeen gauzarik bitxiena?**

- Gerra aurreko txanpon batzuk daude, trukerako txapak, eta diru balioa izan beharrean, 200 gramo okela, ogi edota hirin balio zuten garai haretan.

# Labegaraietako *futbito* Txapelketa

## 1. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | 19 | 7 | 28 | 13 |
| 2. Bergatrans | 15 | 6 | 20 | 6 |
| 3. Madura Industrias Gol | 13 | 6 | 21 | 8 |
| 4. Ogizun | 13 | 6 | 23 | 17 |
| 5. Mongatxurra | 12 | 7 | 27 | 13 |
| 6. Bar Canalejas | 12 | 7 | 17 | 9 |
| 7. Kabia | 10 | 6 | 12 | 10 |
| 8. Ortzi | 10 | 7 | 16 | 15 |
| 9. Arloteak | 4 | 6 | 10 | 15 |
| 10. Bildurbarek Opel/Lam | 3 | 7 | 14 | 26 |
| 11. Ozaeta | 3 | 7 | 13 | 17 |
| 12. Ufala | 0 | 6 | 6 | 30 |

## 2. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. OH Zerezos | 16 | 6 | 50 | 14 |
| 2. Hartu Zamak | 14 | 7 | 25 | 16 |
| 3. Pagomendi | 13 | 6 | 32 | 17 |
| 4. A Ze Flaxa | 12 | 6 | 18 | 20 |
| 5. Autoberezi | 9 | 6 | 27 | 20 |
| 6. Kayak Os Jardineiros | 9 | 6 | 30 | 23 |
| 7. Uve Bikoitza | 9 | 7 | 24 | 33 |
| 8. Etxagi | 7 | 6 | 31 | 26 |
| 9. Naikari Hooligans | 7 | 6 | 26 | 30 |
| 10. Eri | 4 | 6 | 18 | 29 |
| 11. Haltzari | 3 | 6 | 17 | 33 |
| 12. Indargorri | 2 | 6 | 10 | 16 |

## 3. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. Kirolzaleak | 16 | 8 | 30 | 15 |
| 2. Soropotroak | 15 | 7 | 37 | 28 |
| 3. Nekrofilikos | 15 | 7 | 29 | 22 |
| 4. Constr. Bergara | 11 | 6 | 25 | 14 |
| 5. Amozkibar | 10 | 7 | 14 | 11 |
| 6. Shaktale | 9 | 7 | 17 | 20 |
| 7. La Juve | 9 | 7 | 24 | 27 |
| 8. Ezinleike | 8 | 6 | 26 | 18 |
| 9. Moskis | 7 | 5 | 16 | 18 |
| 10. EH Biterrak | 7 | 7 | 11 | 35 |
| 11. Ari Ari | 6 | 6 | 36 | 37 |
| 12. Igandekoak | 0 | 5 | 15 | 22 |

## 4. MAILA

| TALDEA | P | J | G.A. | G.K. |
|---|---|---|---|---|
| 1. FAC | 18 | 6 | 31 | 10 |
| 2. Guadalest | 13 | 6 | 22 | 16 |
| 3. Pata Negra | 13 | 7 | 24 | 22 |
| 4. PJS | 12 | 6 | 25 | 10 |
| 5. Patxaran Team | 10 | 6 | 24 | 13 |
| 6. Txipiron | 10 | 5 | 25 | 12 |
| 7. Osintxu | 9 | 6 | 21 | 24 |
| 8. Matxakategi | 5 | 6 | 21 | 28 |
| 9. Labegaraieta | 4 | 6 | 12 | 23 |
| 10. Aldoka Maldoka | 3 | 6 | 23 | 33 |
| 11. Xurrupak | 0 | 6 | 13 | 44 |

## TALDEAK



**A Ze Flaxa** taldea Felix Jiménez, Jose Luis Gómez, Mikel Zubimendi, Juani López Aramendi, Josu Lazkano, Igor Unzurrunzaga, Ignacio Puertas, Joseba Balzategi, Mikel Santos, Jon Loidi, Iñigo Alonso, Emilio Bernal eta Pako Vallejosek osatzen dute. BKEko futbol taldean ibilitako hainbat jokalari daude taldean eta modu bikainean hasi dute denboraldia, sailkapenean aurrekaldean baitaude. Izenari dagokionez, duela urte batzuk herriko talde politiko batek Udal hauteskundeetarako aukeratutako eslogana hartu dute, jokalariek esan digutenez.

## PARTIDUAK

**LARUNBATA BARRUAN**

**09.00:** Labegaraieta-Xurrupak • **Moskis**

**10.00:** Ezinleike-Moskis • **FAC**

**11.00:** Osintxu-FAC • **Ezinleike**

**18.00:** Arloteak-Bergatrans • **Kirolzaleak**

**19.00:** Kirolzaleak-Constr. Bergara • **Bergatrans**

**20.00:** Guadalest-Patxaran Team • **C. Bergara**

**IGANDEA BARRUAN**

**09.00:** Txipiron-PJS • **Kabia**

**10.00:** Madura Industrias Gol-Kabia • **Txipiron**

**16.00:** Aldoka Maldoka-Matxakategi • **Ufala**

**17.00:** Ogizun-Ufala • **Haltzari**

**18.00:** Haltzari-Eri • **Autoberezi**

**19.00:** Autoberezi-Naikari Hooligans • **Kayak OJ**

**20.00:** Kayak Os Jardineiros-A Ze Flaxa • **Naikari**

**IGANDEA KANPOAN**

**16.00:** Etxagi-Indargorri • **Pagomendi**

**17.00:** Pagomendi-OH Zerezos • **Etxagi**

**ANTOLAKETA BATZORDEAREN OHARRA**

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, txapelketan diharduen talde bakoitzak 8.000 pzta. ordaindu beharko dituela abenduaren 16a baino lehen.

## EMAITZAK

**1. MAILA**

| | |
|---|---|
| Bildurbarek Opel/Lam-Bar Canalejas | 0 - 6 |
| Ogizun-Arloteak | 5 - 4 |
| Errotagain-Ortzi | 3 - 2 |
| Ozaeta-Mongatxurra | 2 - 3 |

**2. MAILA**

| | |
|---|---|
| Uve Bikoitza-Hartu Zamak | 4 - 9 |
| Indargorri-Naikari Hooligans | 2 - 6 |
| Haltzari-Kayak Os Jardineiros | 5 - 8 |
| Etxagi-A Ze Flaxa | 0 - 5 |

**3. MAILA**

| | |
|---|---|
| Nekrofilikos-Ari Ari | 5 - 4 |
| Soropotroak-Amozkibar | 1 - 0 |
| La Juve-Igandekoak | 4 - 2 |
| Moskis-Kirolzaleak | 2 - 8 |
| EH Biterrak-Shaktale | 3 - 1 |

**4. MAILA**

| | |
|---|---|
| Labegaraieta-Osintxu | 3 - 4 |
| Aldoka Maldoka-FAC | 0 - 8 |
| PJS-Matxakategi | 5 - 2 |
| Txipiron-Xurrupak | 9 - 1 |
| Pata Negra-Guadalest | 3 - 4 |

## TALDEAK



**Etxagi** taldea Iñaki Gorroño, Iosu Azkarate, Bittor Alkorta, Roberto Franco, Juantxo Izuskiza, Aitor Galdos, Jesus Marín, Fernando Etxabarri, Jose Angel Torres eta Alejok osatzen dute. 10 urte daramatzate elkarrekin jokatzen eta urte batean Kopako txapeldun ordeak izan ziren. Iazko denboraldian justu samar ibili ziren jokalari aldetik eta aurten berriak ekarri dituzte. Berriz ere lehen mailara igotzeko esperantza ez dute galtzen, baina txapelketari dagokionez, arbitraiak hobetu beharko liratekeela adierazi digute. "Txapelketako arlorik txarrena baita" diote Etxagikoek.

## Txinpartak

### Emakumeen futbito txapelketa

Lagunak Areto Futboleko elkarteak Emakumezkoentzako lehenengo futbito txapelketa antolatu du datorren urtarrilaren 13rako. Izena Etxagi edo Pol-Pol tabernetan eman daiteke. Txapelketak ez du adin mugarik eta taldearen izenarekin batera, delegatuaren telefonoa eta kamisetaren kolorea eman beharko dira. Kirolari federatuak onartzen dira eta txapelketa liga erara jokatuko da. Izena emandako taldeekin datorren abenduaren 12an Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan bilera egingo da.

### Motozaleen irteera

Herriko motozaleek urte bukaerako moto irteera iragarri dute igande honetarako. Goizeko 10etan elkartuko dira Zapelaitz tabernan eta bokadiloa eraman beharko da. Zapelaitz Motozale Elkarteak dei egiten die herriko motozaleei irteeran parte hartzeko.

### Igerilariak Oñatin

Bergara Igeri Elkarteko Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Eli Alberdi, Amaia Lazpiur, Antxon Maiztegi eta Agurtzane Crespo, larunbatean Oñatin jokatuko den Igerilari Konpletoaren Gipuzkoako Txapelketan hartuko dute parte.




Martin Egañak urte piloa daramatza zirkuitoetan korritzen. Asteburuan Espainiako txapelketa lortu dezake.

# Martin Egaña, Citroen AX GTI txapelaren bila

Martin Egaña gidari bergararra ostegunean irten zen Xerez aldera Citroen AX GTI Kopako azken lasterketan parte hartzeko. Joan zen asteburuan bere anaiarekin kotxea puntuan jarri ondoren Egaña txapela Bergarara ekartzeko prest azaldu da. Baina lehenago larunbat goizean entrenamendu ofizialak egin beharko ditu eta arratsaldean final erdietan aritu. *"Finalerdietan 5 lehenengoen artean geratzen banaiz txapelketa irabaziko dut. Hori ez badut lortzen igandean 25 lehenengoen artean sailkatuta txapelketa irabaziko dut"* adierazi digu Egañak Andaluzia aldera irten baino lehen. Halere, lasterketa bukatzen ez baldin badu ere irabazle izango litzateke, 2. postuan dagoen Recuenco Madrildarrak ez badu lasterketa irabazten. Joan zen urtean Xerezen jokatutako lasterketan Egañak lehen postua eskuratu zuen eta aurreko bi urteetan podiumera igotzea lortu zuen.




Sasoi puntu onenean ez egon arren aurrera darrai ETB-DV txapelketan.

## Iker Muruamendiaraz ETB-DVko final erdietan

Iker Muruamendiaraz pelotaria ETB-DV torneoko final erdietarako sailkatu da Gastezi, bere bikotekidearekin batera, Arroyo eta Matuteri 22 eta 6 irabazi ondoren. Txapelketa honetan jubenil mailako pelotaririk onenek parte hartzen dute eta datorren abenduaren 8an Mungian final erdiak jokatuko ditu. Oraindik ez daki zeintzu izango diren bere arerioak baina itxaropentsu agertzen da. *"Ondo jokatu genuen eta txapelketa irabazteko esperantza badut. Orain mediku batekin hasi naiz lan fisikoa egiten eta gustora nabil, oraindik erritmoa falta zaidan arren"*. Bestalde Aritz Berraondo antzuolarrak ezin izan zuen aurrera jarraitu txapelketa bereko nagusien mailan.

## Karteldegia

### FUTBOLA

♦ **Bergara-Pasajes**
Preferente maila.
Igandea, 15.30. Agorrosin.

♦ **Bergara-Urola**
Ohorezko mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

♦ **Bergara-Aretxabaleta**
2. mailako jubenilak.
Igandea, 11.00. Ipintza.

♦ **Bergara-Aitzgorri**
Lehen mailako kadeteak.
Larunbata, 17.30. Ipintza.

♦ **Bergara-Arantz. Ama**
Lehen mailako infantilak.
Larunbata, 11.45. Ipintza.

♦ **Bergara-Arrasate**
Emakumezkoak.
Igandea, 9.30. Ipintza.

### ESKUBALOIA

♦ **Bergara-Tolosa**
Kadete mutilak.
Igandea, 11.00.
Labegaraieta kiroldegia.

♦ **Bergara-Egia**
Jubenil mutilak.
Igandea, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.



### SASKIBALOIA

♦ **Ibili Bergara-Aralar**
Junior neskak.
Larunbata, 16.15.
Labegaraieta kiroldegia.

# Gaizka De Miguel

## Bizikletarekin maldak jeisten

**Gaizka De Miguel (17 urte) iaz hasi zen Mendiko bizikleten jeitsierak egiten. Lehen urtea izateko emaitza txukunak lortu ditu, Gipuzkoako txapelketan onenen artean sailkatu baitzen junior mailan.**

**- Nola hasi zinen horrelako kirol batean?**

- Mendiko bizikleta erosi nuen eta jeitsieretan beste batzuk ikusten nituenez animatu egin nintzen lasterketetan parte hartzera. Batzuk zoratuta nagoela esaten didate, arrisku pixka bat dagoelako. Baina ez da horrenbesterako.

**- Zer behar da jeitsieretan aritzeko?**

- Hori zirkuitoaren araberakoa da. Batzutan, kurba asko dutenetan indarra behar duzu, beste batzutan fondo gehiago. Bizikleta ere ondo menperatu behar da eta horretarako teknika eta indarra behar dira.

**- Entrenamendu berezirik egiten al duzu?**

- Iaz ez, baina aurten gimnasioa eta bizikleta tartekatzen hasi naiz eta emaitzak hobetzea espero dut. Mendira bizikletan igotzen naiz eta jeisteko pista aproposen bat ikusten badut hor aritzen naiz. Entrenatzeko kaskoa erabiltzen dut eta lasterketetan protektoreak ere beharrezkoak dira.

**- Bizikletak ere desberdinak dira, ez?**

- Bai, aurrean amortiguadoreak dituzte eta diru gehiago baldin baduzu atzean ere jartzen dira. Frenoak ere hobeak dira eta materiala gogorragoa da.

**- Jeitsieretan ze abiadura hartzen duzue?**

- Hori zirkuitoaren araberakoa da. Gainera mendian edo errepidean 90 km orduko hartzea ezberdina da. Mendian arriskutsuagoa da, normalean 50 km edo 70 km orduko hartzen dugu gehienez.

**- Arriskutsua al da?**

- Erorketak beti izaten dira, baina hori ez gertatzeko bizikleta menperatzea derrigorrezkoa da. Halere lasterketa baino lehen zirkuitoa askotan jeisten dugu kurben trazatuak ondo ikasteko. Normalean 2,5 kilometrotik 4 km.rainokoak izaten dira zirkuitoak. Egin dudan denborarik onena? 3'50" Gipuzkoako txapelketan.

**- Datorren urterako ze asmo dituzu?**

- Gipuzkoako Trofeoa osorik egingo dut eta posible bada Espainiako openera joango naiz.




Datorren urtean Espainiako Openera joateko itxaropenak ditu.

## "Erorketak ez izateko bizikleta ondo menperatzea ezinbestekoa da"



# *Antzuolako dantzariak*

Antzuolan betidanik izan da dantzarako zaletasuna; horren eredu, 79an Uzarraga gainean dotore asko dagoen neska koadrila. Nork daki! Hainbeste neskaren artetik norbaitek dantzan jarraitu izan balu, honez gero Bolshoi balletean ezagunen bat izango genuen...

**Atzean ikurriñarekin:** Aintzane Iraeta eta Argiñe Agirre.

**Lehenengo iladan:** Ana Maite Errasti, Jaione Toledo, Gentzane Alzelai, Amaia Toledo, Jone Larrañaga, Lore Kerejeta, Eli Etxaniz, Amaia Pildain, Bakarne Larrea, Monika Zabalo, Mirari Lamariano, Olatz Alzelai, Jone Legorburu, Irune Etxaniz, Itziar Larrea, Josune Zabalo, Amaia Etxaniz.

**Erdiko iladan:** Izaskun Larrañaga, Agurtzane Toledo, Maite Aristi, Miren Arantzazu Garitano, Nerea Garitano, Jone Aranguren, Olaia Lamariano, Miren Karmele Iparragirre eta Dorleta Biteri.

**Makurtuta:** Belen Azkarate, Irantzu Jauregi, Ana Isabel Garitano, Goizane Gabilondo, Itxaso Legorburu, Idoia Larrañaga, Lorea Colominas eta Jaione Lamariano.

*Argazkia: Eugenio Larrañaga*

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, ateak, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



**LANCOME Paris**ek bere produktuengan izandako konfidantzagatik **bezeroak saritu nahi ditu.**
Horrela, bada, **opari berezi bat** jaso ahal izango dute gure bezeroek, **abenduaren 11tik 16ra** bitartean eta esklusibaz,

**EGILUZ lurrindegian.**
**Irizar, 3 Bergara.**
**Tlfnoa: 76 24 82**

LANCÔME
PARIS



**Katabia, 1**

ARTAZI
OIHALAK

**☎ 76 27 17**

# ETXE MOBEL

## MUEBLES ALTZARIAK

# LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

46 urteko esperientzia duten profesionalek sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxa: 79 41 82
ARRASATE



Larunbat arratsaldeetan zabalik!!

**Dena ETXEMOBELen**. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak, garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

**BENETAN HARRIGARRIA!!**